




MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

ULTRASOINUKO APARATUAK. Haurdun egondako emakumeek ezagutuko dituzte, duda barik. Izan ere, ultrasoinuen bidez umekiaren diagnostikoa egiten da. XX. mendeko azken hiru hamarkadetakoa dira; zaharrena goialdeko ezkerrekoa da, eta berriena behean dagoena.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

PILAK ETA KAUTERIOAK. Kauterioak —goiko eskuinaldeko tutu itxurako tresnak— zauriak kauterizatu edo erretzeko baliatzen zituzten. Pilak —behealdeko kubo zuria eta goialdeko zilindro beltza—, aldiz, elektrizitatea sortzeko. Kaxa kauterioak gordetzeko erabiltzen zuten.



linean, elektrizitatea sortzeko Wimhursten aparatua.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

RADATERAPIA GAILUA. II. Mundu Gerran erabiltzen hasi ziren, gehienbat arlo militar eta zibilean. Geroago medikuntzan sartu zuten. Uhin laburrak askatzen zituen, eta eskuan, besoan eta abar ezartzen zen, errehabilitaziorako.

ELEKTROTERAPIA

“Elektrizitatearen teknologia gainditu da edo interes komertzialek baztertu dute?”



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

■ Aparatu horietatik zein erabiltzen da gaur egun?

Gehientsuenak ez dira erabiltzen. Bakarren bat geratzen da,

zituzten. Gaur egun beste sendabide batzuk erabiltzen dira, batez ere tratamendu kimikoak. Hala ere, galde daiteke ea elektrizitatearen teknologia gainditu den edo interes komertzialak izan diren elektroterapia baztertu dutenak...

■ Zeintzuk izan ziren aurre- rapenik garrantzitsuenak?

Elektroshockak emateko makina aipatuko nuke nik; elektrotropiaren gailurra izan zen, baina oso gogorra eta krudela zen. Horregatik, XX. mendearen bigarren zatian baztertzeko hasi ziren, baina, hala ere, 70eko eta 80ko hamarkadetar iritsi zen.

ostera: ultrasoinuak eta uhin laburrak ekoizten dituzten gailuak.

■ Zer ikas daiteke erakusketatik?

Hainbat gauzaren artean elektroterapia teknika bat izan dela medikuntzaren historian. Horren lekukotza daukagu hemen, erakusketan. Gura duenak aukera polita dauka historiaren zati bat ikusteko, modu grafikoa.

LABURAEAN



JESUS DE LA CALLES / EFE

Otsoak atzemateko erabiliko dituzten astoetako batzuk.

INGURUMENA

Otsoak era kontrolatuan akabatzeke astoak hazi eta amu gisa erabiltzen ari dira Espainian

Gaztela eta Leongo Juntako Ingurumen Sailak asto haztegi bat dauka La Culebrako (Zamora) mendizerrako ehiza erreserban. Asto horiek hazita daudenean, modu bitxian erabiltzen dituzte: eskualdean otsoek azienda arriskuan paratzen dutenean basozainek astoak akabatu eta amu gisa erabiltzen dituzte. Hala, otsoak asto hilengana gerturatzean basozainek modu kontrolatuan akabatzen dituzte. Halako neurriak erreserban otsoen gainpopulazioa dagoenean soilik hartzen dituzte.

OSASUNA

Gorputzaren bat-bateko mugimenduek garuneko infartuak eragin ditzakete

AEBetako Minbiziaren Elkartek jakinarazi duenez, gorputza bat-batean mugitzeak kalte egin diezaioke garunari. Esaterako, norbaitek atea jotzean eserita dagoena bat-batean altxatzen bada garuneko infartua izan dezake; medikuek zehaztu dutenez, infartua horretarako joera duenengan gerta daiteke. Egindako ikerketaren arabera, garuneko infartua pairatu dutenen %20k hori gertatu aurretik estres emozionalen edo eginahal fisikoren bat izan du. Orain arte gauza jakina zen ariketa fisiko bortitzek bihotzekoa eragin zezaketela, baina garuneko infartuaren gaineko ikerketarik ez zen egin.

ERLIJIOAK

Mekara joateko milioi bat baina gehiago eman dizkie Saudi Arabiak atzerriko musulmanei

Saudi Arabiako agintariek milioi bat bisatik goiti eman dizkie aurten Meka hirira erromes joango diren atzerriko musulmanei. Bisak 40 herrialdetan baino gehiagotan banatu dituzte. Agintari saudiarrek kalkulatu dutenez, litekeena da urtean hiru milioi musulmanek egitea Mekarako erromesaldia —arabieraz, *hajj* esaten zaio—. Mekarako peregrinazioa musulmanek bizitzan behin gutxienez egin beharreko errito bat da. Bestalde, aurtengo *hajj*-ean Ameriketako Estatu Batuen aurkako protestarik egon ez dadin neurri bereziak hartuko dituzte agintari saudiarrek.

INFORMATIKA

San Valentin egunaren kariaz posta elektroniko bidezko zoriontzeekin adi egoteko gomendatu dute

Heldu den otsailaren 14an San Valentin eguna ospatuko dute hainbat bikotek eta merkataritza enpresak. Horren kariatara, besteak beste posta elektroniko zoriontze mezu ugari bidaliko direla espero da. Hala, ziberpiratek aukera paregabea izango dute beren birus informatikoak ezkutatzeko. Adituen iritziz, halakoetan maiz mezu kutsatuak oharkabean berriz bidaltzen dira, eta birusa areago hedatu. Hain zuzen ere, arrisku horretaz ohartarazi dute Data Security Center konpainiako adituek. Arrisku horri aurre egiteko neurri batzuk hartzera aholkatu dute, hala nola data horren inguruan jasotako mezu oro mesfidantzaz hartzea —nahiz eta ezagun batengandik etorri—, sartzen den posta elektroniko arakatuko duen birusen aurkako programa eguneratu bat instalatzea, eta birus lanjerosen agerraldiaz egiten diren oharrei adi egotea.